

Xipri Arlaellalde

APAIZA ETA KAZETARIA

Requiem II

Berri txarrak! Berri txarrak! Alde guztietatik! Aro aldaketaz zenbaitek ziotena gero eta seguragoa da. Bi edo hiru graduz goitituko da berotasuna mende hondarrerako. Omen! Somalia, Kenia eta Etiopian egundainokotan idortea. Eta idorteari dagokiola, gosetea. Hemen berean jadanik horrenbeste mila milioi euro emanak, eta beste andana bat eman beharko Greziari: 19.000 milioi Frantziari doakionaz. Orain arte dirua xuhur eta hori, zauriaren gaineko piko! Espainia eta Italian ere zerbait beharko ote den... Frantziak berak espantu guti. *Requiem* liburua-
ren edizio berri bat, emendatua, osatua, agertu beharko du Xiprik.

Horiek denak ez ote dira beti zinkurinka ari direnen negarrak? Nahi duzuna, nahi bezain ongi eginik ere, beti zerbait makur. Zer munta zaigu mende hondarra? Hilak izanen gara!

Itsasoa goratuko? Baionan, Aturri bazterreko etxeak urpean litezkeela marea handi egunetan? Eta gero? Gaurko zientzia modernoarenekin hori ez da arazorik: uraren bi bazterretan metro bat gorako hormak eraiki eta ura ez da hedatuko. Gauza bera Urumea, Orio, Deba, Ibaizabal eta bestetan. Konturatzen zara zenbat mila lan ordu sortuko duen horrek? Zer garapena ekonomiarentzat!



DANI BLANCO

« Egon lasai eta joan laruaren belztera, zabal-zabala emanik hondartzan. Larrua erretzearen bortxaz, minbizia biltzen baduzu, lana emanen diezu medikuei. Garatuko den ekonomia sail bat gehiago! »

Airea berotuko? Ez ote dituzu ezagutzen aire-egokizaleak? Salduko dira orain arte berogailuak bezala, eta horra beste punpa bat goiti gure ekonomiarentzat.

Afrikako idortea? Hilak milaka? Eta zer? Beltzak gehiegi dira. Honara etorri behar bizitzeko, ez baitira gai hango jendetzearen garapena mugatzeko. Ez daukate ez begiragailurik, ez pilularik gaixoei. Ez eta dirurik horien erosteko. Guk beharko genizkieke pagatu? Badugu premiagorik. Idorte eta goseteari esker, naturalki mugatuko da haien hazkundera eta ez dute emigratzerik izanen, itsasoa itozteko arriskuarekin.

Gure diru arazoak? Beti izan dira. Beti izanen. Eta beti atera gara. Zergatik ez oraingoan? Ahantzi zaizu ala? Duela hiru urte ekonomia mundializatua kili-kolo egon zen eta zulotik atera gara. Zalukara! Zuloan sartu eta atera gaituzten haiek berek daukate eskuetan munduko giderrak. Zinez bihurria izan behar da ez sinesteko oraingoan ez dutela orduan bezain ongi eginen.

Egon lasai eta joan laruaren belztera, zabal-zabala emanik hondartzan. Tahitira joateko doa ez baduzu, Andaluziara bederen. Larrua erretzearen bortxaz, minbizia biltzen baduzu, lana emanen diezu medikuei. Garatuko den ekonomia sail bat gehiago! ■

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



maite dudala uste dut, bere presentziak ez nau inkomodatzen, bere jardunak ez nau deserosotzen, eta aldian behin nire arreta irabazten du. Kotxea dut entzun leku ohikoena, eta, ingurutik urruntzen naizelarik, automatikoki aldatzen dira sintoniak aldiro azkarrena erakarriz. Ahotsek desberdintzen dituzte beren artekoa, formatu berdintsuetan esatariak kantariak bailiran. Ez dituzte garunak nekatzen gai eta mezu bila, klonikoak dira gehienak. Espainolez ari direnak dira nabarmenenak klonifikazio horretan, eta politika eta futbola, ez kirola, dituzte oinarri. Aspaldion, tertulia oihularietan dute elkargune, nor

Irratia

baino nor zabarrago. Bi izar dituzte argi: Bildu eta Barcelona. Biak nahi lituzkete desagerrarazi. Lehenarekin dute errazago ikusten helburua gauzatzea, eta orenak eta orenak ematen dituzte giro soziala prestatzen hala izan dadin. Gipuzkoan dute kokatu xedea, eta probintzia bera nahi lukete ilegalizatu eurentzat aski espainola ez delako. Zailagoa zaie bigarrera alboratzea. Beren gusturako katalan jokalariai nahikoa patriota espainolak ez badira ere, haiei zor dizkiete doan hartutako autoestima tonak mundu zaballean. Hala ere, kasu, beren Real Madrilek ez badu irabazten, kapaz dira Barça ligatik kanporatzeko eta. Ez dute gogorik falta, eta lotsarik ere ez. ■